

ERRABAL
J | A | Z | Z

Gonzalo Tejada Quartet
Norma Jeane Baker

94 PK. 20590 SORALUZE
Tel: +34 943 753 016
Mail: errabal@hotsak.com
www.hotsak.com/Errabal
www.errabajazz.com

Errabal (ER-072)
2014
CD



Ezbairik gabe, XX. mendeak eman duen pertsonaia ikonodun eta karismadun pertsonaietako bat da Marilyn Monroe. Beste inork baino hobe batu zituen ordutik aurrera sekula ere berdina izango ez ziren genero eta arte baten garbitasuna eta sentsualtasuna. Zinemak ez zuen haren jatorrizko xalotasuna berreskuratuko, eta ez zen haren itzaletik ihes egingo zuen beste antzezlarirekin horirik sortuko. Antzeko zerbait gertatu zen jazzaren munduan Charlie Parker hil zenean. Gure garaiko mitohoriek milaka aldiz aldarrikatutako ondare iraunkorra utzi zuten, begiratu huts batez dirudien baino lotura handiagoa dagoela euren artean: biek ala biek izugarri maitezituzten standard berberak, era guztietako musikarien errepertorioetan jasotako Hollywoodeko eta Broadwayko arrakasta handiak, jazzaren esparruan bat-batekotasunari ateak irekitzeko aitzakia zirenak.

Monroeren jardun musikala asko eta askorentzat pasadizo exotiko bat baizik ez bada ere, harrizko modukoak dira haren kantu-interpretazioak, freskoak eta swing eta alaitasunez beteak baitira. Haren teknika iristen ez zen puntuetara erraz iristen zen bere naturaltasuna. Gonzalo Tejadak proiektu berri honetan Marilyn eskaintzen dion omenaldian berreskuratu egiten ditu izarraren interpretazio ezagunenak —Kiss, My heart belongs to daddy, etab.—, eta erraz konpentsatu du buru gisa bideratu zuen azken grabaziotik joandako denbora (Encore, 2005). Kontrabaxu jotzailea estudioan ez da guk nahi bezain bestetan azaltzen, baina azaltzen denean beti du zeresan garrantzitsua, eta beti gustu onaren bermearekin.

Bihotz-bihotzez egindako diskoa da Norma Jeane Baker. Dotorea da, goraiatzeko moduko konponketa-lanak ditu, eta xehetasun guztiak ongi asko zainduta. Eta bete-betean asmatu du formatua eta laguntzaileak aukeratzeko garaian: Mikel Andueza, Roger Mas eta Iago Fernández bikain ari dira, lasai eta inspirazio handiarekin, eta String Chamber Orchestra orkestrak konposizio bakoitzak eskatzen duen distira eskaintzen du, diskoari zinema kutsua emanez baina doako apaingarrietan erori gabe.

Era berean beste garai bati iragan mendeko berrogeigarren eta berrogeita hamargarren urteei— eta sekula galduko ez den tradizio bati egindako omenaldia da, besteak beste Bird, Hank Jones, Ben Webster eta Chet Baker artisten lekukotasunei esker.

ERRABAL
J | A | Z | Z

Gonzalo Tejada Quartet
Norma Jeane Baker

94 PK. 20590 SORALUZE
Tel: +34 943 753 016
Mail: errabal@hotsak.com
www.hotsak.com/Errabal
www.errabajazz.com

Errabal (ER-072)
2014
CD



Bitxia da.

Azkenean, buru gisa agertzen naizen baina nire gaiak ez baizik eta 40. eta 50. urteetakoak biltzen dituen proiektu diskografiko hau izan da, niretzat bederen, inoizko diskorik pertsonalena.

Nire aurreko lanetan, Ziklo1 (1994), En tránsito (2000) eta Encore (2005), batik bat neuk edo nire taldekideek ondutako gaiak osatzen zuten errepertorioa, eta ez genien arreta berezirik eskaintzen standard esaten zaien gaii.

Berrogeita hamar urte baino gehiago duten gaiak bildu arren -bi baizik ez dira berriak-, zalantzarik gabe Marilyn da CD hau hain gertu, hain neure, sentiarazten didan arrazoi bakarra.

Marilynek beti liluratzen nau. Nolabait esateko, hura ezagutu baino lehen nintzenaz beste sentiarazten dit.

Marilyn gogoan hartzen dudak bakoitzean ikusten dut hura Niágara filmean. Soineko arrosarekin, ile-adats hori paregabearekin, belarritako urreztatuekin... Kiss gaia xuxurlatuz.

Ezinezkoa gertatuko zen proiektu hau aurrera eramatea lagun-min eta musikari handi Mikel Anduezaren laguntza ezin baliotsuagorik gabe, klarinetea eta saxo altu, tenor eta sopranoa jotzen baititu hainbat gaitan, eta Roger Mas piano-jole betiere lirikoaren eta Iago Fernandez bateria jotzaile gazte eta bikainaren ekarrien gabe.

Egia da betiere zaila dela 50 urte baino gehiago duten abesti arrakastatsuekin errepertorio bat osatzea. Areago diskoak abeslaririk ez badu. Horrexegatik erabaki nuen harizko musika tresnen sekzio handi hau gurera biltzea, 50. urteetako musika betiere iheskor horrekiko konexioa errazteko.

Izan ere, dagoeneko joana den garai bateko giroa sorberritu besterik ez nuen nahi, hori bai, egungo ikuspegitik sorberritu. Baina, hobe pentsatzen ari naizen honetan, agian helburu lausoagoa nuen: nostalgia bat sorberritzeko ahaleginak egitea; dagoeneko betikoz galdua den zerbaiten nostalgia sorberritzeko saioak egitea.

Zuen gustukoa izatea espero dut.

Gonzalo Tejada
2014ko urria

